

T3T , T2T eta Gazte lasterketa 2019. ARAUDIA

0. Artikulua: ANTOLAKUNTZA:

- Oargi Mendi Elkartek, G-20162665 kirol erregistroetako zenbakiarekin T3T Maratoia, T2T Lasterketa eta Gazte lasterketa antolatzen ditu.

1. Artikulua: EGUNA ETA LEKUA:

- (TOLOSALDEKO 3 TONTORRAK) (T3T) mendi lasterketa
- 2019 ko ekainaren 16 an (Igandea) ospatuko da eta goizeko 9:00etan hasiko da. Irteera eta helmuga Tolosako Triangulo plazan izango da.
- T2T lasterketaren irteera ordua 9:30tan izango da leku berean.
- Gazte lasterketa goizeko 10:00tan abiatuko da zehaztutako lekutik.

2. Artikulua: IBILBIDEA:

- T3T Lasterketak TOLOSA-ALKIZA- ANOETA-IRURA- ELDUAIEN-GAZTELU-LEABURU-IBARRA-TOLOSA herriak pasako ditu besteak beste eta 43'5 km eta 2800 + ko desnibel positiboa edukiko du. Hiru lasterketen neurketak ez daude homologatuta.
- T2T lasterketak 24'5km eta 1600m + ditu . Uzturre eta Erroizpeko gainak pasako ditu. T3Tko 21. Km tik aurrera, eta T2Tko 4,5tik aurrera, bi lasterketak berdinak dira.
- Gazte lasterketak: 12-13km artean eta 600-700m arteko desnibel positiboa izango du.
- Antolakuntzak ordezeko ibilbidea prestatua izango du eguna baino lehen ibilbidean edo prestaketan arazoak sortuko balira. Aldaketa hau ahalik eta azkarren zabalduko litzateke kanal desberdinetatik. Bestalde ustekabeko arrazoi indartsu batengatik lasterketa bertan behera uzteko ahalmena ere izango du.

3. Artikulua: PARTE HARTZEA:

- Araudi honek dioena betez gero, T3Tn, txapelketa dela eta, 18 urteko kirolari orok parte hartu ahal izango du (2001urtean zehar jaiotakoak barne, urtean zehar bete behar direlarik urteak. Hala ere, lasterketa egunean oraindik 18 urte bete gabeak badira guraso edo tutorearen oniritzia izan beharko du) Federatua izan edo ez. Antolakuntzak, proba aurretik, azterketa mediku bat egitea gomendatzen die parte-hartzaile guztiei, eta hauek bere gain hartuko dute proban gerta liekeena.
- T2Tn 18 urtetik gorako lasterkari orok parte ahal izango du, 18 urte egunean bertan beteak izan beharko direlarik, eta ez urtean zehar.
- Gazte lasterketan 15-17 arteko kadeteak eta 18-20 urte arteko juniorrek parte ahal izango dute. (Guraso edo tutorearen oniritziarekin adingabeak).

3.1. Antolakuntzak edozein lasterkariri, lasterketan parte hartzea ukatzeko eskubidea izango du, euren iritziz parte hartze horrek euren irudiaren kontra egiten duela erabakitzen edo ondorioztatzen badute.

4. Artikulua: EZINBESTEKO MATERIALA:

- **4.1.** Haize-babesgarria.
- **4.2.** Eguraldi txarra eginez gero: "txubaskeroa" edo euritakoa. Atal hau antolakuntzak argituko luke dortsala hartzeko momentuan aurreikuspenen arabera. Gainera, eguraldi iragarpena oso beroa bada, antolakuntzak likido kopuru jakin batekin ateratzera behartu dezake. Hau ere dortsal banaketan argituko litzateke.
- **4.3.** Derrigorrezkoa izango da ezinbesteko material guztia irteera lekurako atetik sartzerakoan aurkeztea.
- **4.4.** Irteeran edukitzen den material berberarekin, bastoiak esaterako, egin behar da ibilbide osoa. Atal hau ez betetzeak sailkapen nagusian galera izatea ekarriko du.
- **4.5.** Atal hau ez betetzeak galera izango du. Derrigorrezko materialaren azken erabaki zurruna dortsal banaketan adieraziko da.

5. Artikulua: ADIN MAILAK:

- Gizonezkoetan eta emakumezkoetan hauek izango dira, proba egunean bertan lasterkariak duen adina.
- 45 urtetik gorakoak.
- 23 urtez beherakoak.
- Eskualdeko lehenak.
- Senior gizonezkoak eta emakumezkoak, 18 urtetik gorakoak.

6. Artikulua: SARIAK:

- T3T, Maila absolutuan emakumezkoetan eta gizonezkoetan (seniorretan):
 - 1. (500€)
 - 2. (250€)
 - 3. (125€)
- Gainontzeko adin maila guztietako irabazleentzat sariak garaikurrak izango dira. Sariak pilatu egin ahalko dira.
- Ernioko tarteko helmugan lehen postuan pasatzen diren gizon eta emakumearentzat saria egongo da, (200€) txiparen alfonbrak adierazitako denborak zehaztuko du dena. Saria jaso ahal izateko lasterketa amaitu beharko da.
- T2Tko sariak, emakume naiz gizonezkoentzat, 150€-100€ eta 50€ izango dira hurrenez hurren lehen 3 sailkatuentzat. Ez da beste saririk izango proba honetan.
- Gazte lasterketako sariak, oroigarriak izango dira, ez da izango sari ekonomikorik.

7 . Artikulua: IZEN-EMATEA:

- Gehienez, 400 parte-hartzaile izango dira, izen-emate ordena zorrotz jarraituko delarik internetez. Izen ematea <https://web.rockthesport.com/login> web atariaren bidez egingo da, 2019ko martxoaren 1etik ekainaren 1era. Izen ematea 40€ izango da, federatuentzat eta 42€ federatu gabeentzat.
Maiatzaren 1tik aurrera, ekainaren 5 arte, izen emateak 50€ eta 52€-ko balioa izango dute hurrenez hurren. Ordainketak, (hiru lasterketetan) proban parte hartzeko eskubidea eta erantzukizun zibil eta istripu aseguruak edukitzeko eskubidea ematen du, eta halaber, parte-hartzaileentzat jarritako kirol instalazioak erabili, korrikalariaren poltsa, *finisher* kamiseta eta proba amaierako otordua hartzeko ere bai. Behin izena emateko kuota ordainduta, proban ez parte hartzea erabakitzen duenari ez zaio dirurik itzuliko, baina titularitate aldaketa onartuko da ekainak 5 arte, itxaron zerrendako hurrenkeraren arabera.
- T2T lasterketaren prezioak: 325 lasterkariko muga izango da. 25€ federatuentzat eta 27€ federatu gabeentzat. , maiatzaren 1 arte. Handik aurrera ekainaren 5 arte, izen emateen kostua 30€ eta 32€ izango dira hurrenez hurren.Ordainketak, proban parte hartzeko eskubidea eta erantzukizun zibil eta istripu aseguruak edukitzeko eskubidea ematen du, eta halaber, parte-hartzaileentzat jarritako kirol instalazioak erabili, korrikalariaren poltsa, *finisher* kamiseta eta proba amaierako otordua hartzeko ere bai. Behin izena emateko kuota ordainduta, proban ez parte hartzea erabakitzen duenari ez zaio dirurik itzuliko, baina titularitate aldaketa onartuko da ekainak 5 arte itxaron zerrendako hurrenkeraren arabera.
- Gazte lasterketa: 13€ federatuentzat eta 15€ez federatuentzat, maiatzaren 1etik ekainaren 5era 18€ eta 20€ hurrenez hurren. Behin izena emateko kuota ordainduta, proban ez parte hartzea erabakitzen duenari ez zaio dirurik itzuliko, baina titularitate aldaketa onartuko da ekainak 5 arte itxaron zerrendako hurrenkeraren arabera.
- Antolakuntzak bere erabilerarako dortsal kopuru bat dauka gordeta lasterketa bakoitzean.

8.- Artikulua: SEINALEZTAPENA:

- Ibilbidea, probaren karteekin, banderatzko laranjekin eta zintarekin behar bezala adierazita eta ikusgai egongo da. Berau nahita ez jarraitzeak lasterketatik kanporatzea ekarriko dio lasterkariari.

9. Artikulua: ANOA GUNEAK:

- Helmugakoaz gain, gutxienez 9 anoa gunee izango dira ibilbidean zehar. Gune horietan energetikoak eta hidratatzaileak diren produktuak eskainiko dira.

10. Artikulua: KANPOKO LAGUNTZA:

- Lasterketan zehar, lasterkariei ezin zaie korrika lagundu eta anoa oro ematea ere guztiz debekatuta dago, antolakuntzak horretarako ezarritako tokietan izan ezik. Atal hau ez betetzeak galera izango du.

11. Artikulua: KONTROLA ETA ERRETIRATZEAK:

- Antolakuntzak hainbat kontrol-gune jarriko ditu, eta horietatik pasatzea ezinbestekoa izango da. Horietan, araututako kontrolak egingo dira. Irura 4H eta Elduaian 7H. Kontrol gune guztietatik ez pasatzeak galera izango du .
- Antolakuntzako arduradunek kanporatze puntuetan aurrez ezarritako denbora aurreikuspenak betetzen ez dituztenak probatik kanpo utziko ditu eta Tolosara garraiatuko ditu
- Eguraldi txarragatik, edo segurtasun arrazoiengatik, antolakuntzak, proba gelditzeko, aldatzeko eskubidea izango du.
- Lesio edo istripuren batengatik ez bada, korrikalariak ez luke proba bertan behera utzi behar igarotze-kontroletatik kanpo. Proba bertan behera igarotze-kontrola baino lehen uztea erabaki duenak, proba ixteaz arduratzen direnei edo antolakuntzakoei jakinarazi beharko die, haiek txipa desaktibatu eta Tolosara jaisteko.
- Korrikalariak dortsala gordeko du antolakuntzak eskaintzen dituen zerbitzuei (garraioa, dutsak, helmugako anoa-gunea...) etekina ateratzeko.
- Lasterketa derrigor bertan behera uztea. Antolakuntzak aldi baterako gelditzera edo lasterketa bertan behera uztera behar dezake korrikalaria, egoerak bere osasun fisikoa edo segurtasuna arriskuan jartzen baditu.
- Osasun-zerbitzura jotzen duten korrikalariak haien juzkuaren eta balorazioaren esku geratzen dira. Ondorioz, haien erabakiak onartu beharko dituzte. Osasun-zerbitzuek edozein kasutan erabaki hauek hartu ahal izango dituzte:
- Lasterketa jarraitzeko gai ez den edozein korrikalari kanporatzea (dortsala desaktibatuz).
- Arriskuan ikusten duten edozein korrikalari ebakuatu egokien iruditzen zaien baliabidearen bitartez.
- Edozein korrikalari osasun-zentro batera eraman, haren egoerak egokiena hori dela erakusten badu.

12. Artikulua: KONTROL BAKOITZEKO DENBORAK:

- Helmugan sartzeko gehieneko denbora 10 ordukoa izango da: Iruran eta Elduaian denbora mozteak egongo dira. Irura 4H eta Elduaian 7H.

Antolakuntzako arduradunek kontrol guneetan aurrez ezarritako denbora aurreikuspenak betetzen ez dituzten kirolariak probatik kanpo utziko dituzte eta helmugara garraiatuak izango dira . Halaber, araudia betetzen ez duena, markatutako ibilbide osoa osatzen ez duena , dortsala ikusgai ez daramana, antolatzaileen aholkuei kasurik egiten ez diena edo beste kirolariekiko, bolondresetikiko, publikoarekiko errespetu falta erakusten duena ere probatik kanpo utz ditzake antolakuntzak.

13. Artikulua: KRONOMETRATZEA:

- Lasterketaren kronometratzea dortsal txiparen bidez egingo da. Parte-hartzaileek sailkapenak jarri ondoren, 30 minutu izango dituzte erreklamazioak egiteko, denbora hori igaro ondoren, erreklamaziorik ez balego, sailkapenak behin betikoak izango dira. Txipa dortsalean, bular aldean eraman beharko da edota gerrian zinta batean.

14. Artikulua: DORTSALEN BANAKETA:

- Dortsalen banaketa Tolosan egingo da, Kultur Etxean, Triangulo plazan. 2019ko ekainaren 15an, larunbata , 17:00etatik 20:00 tara, eta probaren egun berean, 07:00etatik 08:30etara, leku berean.

15. Artikulua: KONTSIGNA ZERBITZUA:

- Antolakuntzak konsigna zerbitzua eskainiko du parte hartzaile guztiei irteera/helmugan puntuan.

16. Artikulua: INGURUGIROA:

- Lasterketa, ia osotasunean, natur guneetatik zehar igaroko da. Hori dela eta, ingurua babestea derrigorrezkoa izango da eta debekatuta egongo da edozer gauza lurrera botatzea.
- 16.1. Horretarako zaborra biltzeko tresnak jarriko dira anoa gune amaiera guztietan.
- 16.2. Arau hau hausten duena kanporatua izango da.

17. Artikulua: OSASUN ZERBITZUA:

- Antolakuntzak Larrialdietarako osasun zerbitzua jarriko du ibilbideko lekuri estrategikoenetan. Halaber, helmugan dutxa, garbiketa eta lehen mailako zerbitzu medikua eskainiko ditu horren beharrean aurkitzen diren kirolariarentzat. Euren esana betetzea derrigorrezkoa izango da.

18. Artikulua: SEGURTASUNA:

- Antolakuntzak, egoerak hala eskatuta, lasterketaren ibilbidea aldatzeko eta dagozkion gainerako aldaketak egiteko eskubidea dauka, eta baita bertan behera uzteko ere, eguraldiaren baldintzek hala eskatzen badute edo bestelako arrazoi nagusi batengatik, lasterketa batzordearen adostasunarekin.

19. Artikulua: LAGUNTZA EZBEHARRETAN:

- Parte-hartzaileak, laguntza beharrean aurkitzen diren parte-hartzaileei laguntzera behartuta daude, eta baita kontroletan gorabeheren berri ematera ere. Puntu hau ez betetzeak lasterketatik kanporatzea ekarriko du.

20. Artikulua: ERANTZUKIZUNA:

- Antolakuntzak bere gain hartuko ditu, kontratatutako seguruaren estaldurapean baldin badaude, ibilbidean zehar gertatzen diren istripu guztiak, baina korrikalariaren erruagatik edo utzikieragatik gertatu bada istripua, antolakuntzak ez du bere gain hartuko. Parte-hartzaileak euren buruari edo besteei egindako kalte guztien erantzule izango dira.
- Bestalde, antolakuntzak ez du bere gain hartuko Antolakuntzak ez du bere gain hartuko antolakuntzak kontratatutako aseguruaren estalduraz gaindiko, partaide, laguntzaile edo ikusleei gerta dakizkiekeen kalteen (galdu, lapurtu, puskatu ...) ondorioz egindako erreklamazioen erantzukizunik.
- Proban izena eman duten guztiek, euren borondatez eman dutela ulertzen da. Hori dela eta, partaide eta oinordekoek, erantzukizun zibilar dagokionez, antolaketaz arduratzen diren erakundeak, laguntzaileak, babesleak zein beste partaideak ez salatzea eta kargu horietatik guztietatik libre uztea onartzen dute.

21. Artikulua: IRUDI ESKUBIDEAK:

- Parte hartzaile bakoitzak ontzat ematen du antolatzaileek ateratako argazki edo bideoetan euren irudia libreki erabiltzeko eskubidea. Baita ere prentsara bidaltzeko ere. Horretarako ez delarik inongo inprimakirik bete beharko . Ezezkoaren kasuan ezin izango da proban parte hartu.

22. Artikulua: TXAPELKETA

- Ekitaldi honetan gure ohiko lasterketez gain EH txapelketa jokatu da EMF aren laguntzarekin.

23. Artikulua: ONARTZEA:

- Araudi honek aldaketak eta hobekuntzak jasan ditzake antolakuntzak ala erabakitzen badu.
- Lasterketan parte hartzean, araudia onartzen dela ondorioztatzen da.